

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1298/2008/EE ERABAKIA, 2008ko abenduaren 16koa, 2009-2013 Erasmus Mundus ekintza-programa arautzen duena, beste herrialde batzuekin elkarlanean arituz, goi-mailako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta kulturen elkar-ulertzea sustatzeko.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN No 1298/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 por la que se establece el programa de acción Erasmus Mundus 2009-2013 para la mejora de la calidad de la enseñanza superior y la promoción del entendimiento intercultural mediante la cooperación con terceros países». (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 340/83 2008/12/19koa)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 1298/2008/EE ERABAKIA,

2008ko abenduaren 16koa,

2009-2013 Erasmus Mundus ekintza-programa arautzen duena, beste herrialde batzuekin elkarlanean arituz, goi-mailako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta kulturen elkar-ulertzea sustatzeko.

(Texto pertinente a efectos del EEE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 149. artikuluan 4. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin diote,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura bete dute ⁽²⁾,

Alderdi hauek hartu dira kontuan:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2317/2003/EE Erabakiaren bidez ⁽³⁾ ezarri zen beste herrialde batzuekin elkarlanean arituz goi-mailako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta kulturen arteko elkar-ulertzea sustatzeko programa (Erasmus Mundus) (2004-2008).

(2) Kontseiluaren 1085/2006 (EE) Erregelamenduak ⁽⁴⁾ aurretxikitze laguntza tresna (IPA) ezarri du. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1638/2006 (EE) Erregelamenduak ⁽⁵⁾ auzotasun eta elkarketarako tresna europarra ezarri du. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1905/2006 (EE) Erregelamenduak ⁽⁶⁾ garapenerako finantza-tresna ezarri du. Kontseiluaren 1934/2006 (EE) Erregelamenduak ⁽⁷⁾ ezarri du herrialde nahiz lurralde industrializatuekin eta errenta altuko herrialde nahiz lurraldeekin elkarlana finantzatzeko tresna. Europako Garapen Funtzak, bestetik, bi hitzarmen ditu oinarri. Bietan lehena, Afrikako estatuek, Karibeko estatuek eta Ozeano Bareko estatuek Europako Erkidegoarekin eta Europako Erkidegoko estatuekin sinatutako ituna litzateke. Itun hori Cotonu-n sinatu zen 2000. urteko ekainaren 23an ⁽⁸⁾ («AKOB eta EE Elkartzeko Akordio» esango diogu aurrerantzean). Itun horretan zehaztutakoaren arabera, Barne Hitzarmena eratu da EE Tratatuaren laugarren zatia aplikatu zaien itsasoz haraindiko herrialde nahiz lurraldeei finantza-laguntza eskaintzeko (hitzarmen horri «AKOBren eta EEren Barne Akordio» esango diogu hemendik aurrera). Barne Hitzarmen hori, hortaz, Europako Garapen Funtzaren bigarren habea litzateke. AKOBren eta EEren Barne akordioa, beraz, 2008-2013 aldirako Erkidegoaren laguntza finantzatzeari buruzkoa da.

(3) Erasmus Mundus Programa berriak bikaintasunari eusten dio, 2004-2008 aldiko programak bezalatsu. Kalitate handiko ikasketak eskaintzen ditu, kanpotik etorritakoak ondo hartzen ditu eta mundu mailan parekorik ez duen beka-sistema da. Horregatik guztiagatik, kanpoko ikasle onenak erakartzen ditu Erasmus Mundus programak.

¹ C 204 EO, 2008.8.9koa, 85. or

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko urriaren 21ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 16koa.

³ L 345 EO, 2003.12.31koa, 1. or.

⁴ L 210 EO, 2006.7.31koa, 82. or.

⁵ L 310 EO, 2006.11.9koa, 1. or.

⁶ L 378 EO, 2006.12.27koa, 41. or.

⁷ L 405 EO, 2006.12.30ekoa, 41. or.

⁸ L 317 EO, 2000.12.15ekoa, 3. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(4) Kanpo-laguntzako tresnen negoziazioetan eta aurrekontu-diziplinari nahiz finantza-kudeaketa zuzenari buruzko erakunde-arteak akordioaren negoziazioetan ⁽¹⁾, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak hainbat erabaki hartu zituzten kanpo-jardueren kontrol demokratikoari nahiz koherentziari buruz. Eta erabaki horiek arestian aipatu dugun erakunde-arteak akordioari erantsirik datorren 4. aitorpenean bildu dira.

(5) 1999ko ekainaren 19an, Europako 29 herrialdeetako hezkuntza-ministroek Boloniako adierazpena sinatu zuten. Adierazpen horren bidez, gobernuen arteko prozesua ezarri zen, 2010. urterako «goi-mailako hezkuntzaren Europako Esparrua» sortzeko. Prozesu horrek, bidenabar, Erkidegoaren babesa du. Boloniako prozesuan parte hartzen duten 45 herrialdeetako goi-mailako hezkuntzako ministroak Londresen bildu ziren 2007ko maiatzaren 17 eta 18an. Bileran horretan «Goi-mailako hezkuntzaren Europako esparrua inguru globalizatuan» izeneko estrategia onetsi zuten. Horrez gain, 2009an lehenetsi beharreko bi kontu zehaztu zituzten. Batetik, goi-mailako hezkuntzaren Europako esparruari buruzko informazioa hobetzea eta, bestetik, munduko beste leku batzuetako goi-mailako hezkuntzako prestakuntzak onartzea.

(6) Kontseilu Europarrak, Lisboan 2000. urteko martxoaren 23 eta 24an egin zuen ohiz kanpoko bileran, Europar Batasunaren helburu estrategikoa zehaztu zuen: Europakoa jakintzan oinarritutako munduko ekonomiarik dinamikoena eta lehiakorrena bihurtzea. Kontseiluak gogoetarako gonbita luzatu zion Hezkuntza, Gazteria eta Kultura Batzordeari, hezkuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzen inguruan hausnar zezan, kontuan hartuta kezka nahiz lehentasun komunak eta nazio-aniztasuna errespetatuta. 2001eko otsailaren 12an, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzei buruzko txosten bat onetsi zuten Kontseiluak. Ondoren, 2002ko ekainaren 14an, helburu horien jarraipenari buruzko lan-programa zehatz bat onetsi zuten. Programa gauzatzeko, Erkidego osoaren laguntza eskatu zen. Kontseilu Europarrak, martxoaren 15 eta 16an Bartzelonan egindako bileran, zehaztu zuen Europar Batasuneko hezkuntza- eta prestakuntza-sistemek 2010. urtetik aurrera kalitate-eredu izan behar zutela mundu osoan.

(7) Jarraian aipatuko ditugun agiri guztietan azpimarratu da goi-mailako hezkuntzako Europako ikastetxeek indarrak batu behar dituztela hezkuntzaren eta ikerketaren kalitatea areagotzeko, baita lan-merkatuaren behar aldakorrei hobeto erantzuteko ere. Agiriak hauek dira: Batzordearen bi jakinarazpen, «Europako kapital intelektualaren mobilizazioa: unibertsitateek Lisboako estrategia betetzen laguntzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea» eta «Unibertsitateak berritzeko agenda betetzea: hezkuntza, ikerkuntza eta berrikuntza» 2005eko apirilaren 20ekoa bata, eta 2006ko maiatzaren 10ekoa bestea; Kontseiluaren 2007ko azaroaren 23ko Ebazpena, Europa munduko jakintza-ekonomian lehiakor izan dadin unibertsitateak berritu beharri buruzkoa; eta, azkenik, Europako Parlamentuaren 294/2008 (EE) Erregelamendua, 2008ko martxoaren 11koa, Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Erakundea ezarri duena ⁽²⁾. Kontseilu Europarra, 2006ko ekainaren 15 eta 16an Bruselan egindako bileran, Europako goi-mailako hezkuntza eguneratzeko behararen alde agertu zen.

(8) Erasmus Mundus egungo programaren erdiko ebaluazio-txostena egin da. Horrez gain, galdeketa publiko irekia gauzatu da Erasmus Mundus programaren etorkizunaren gain. Biek ala biek argi erakutsi dute gaur egungo programaren helburuak eta ekintzak egokiak direla. Erasmus programan, nolahi ere, hainbat egokitzapen egin dira: doktoretza-mailan aplikatu da, hirugarren herrialdeetako goi-mailako hezkuntzako ikastetxeak sartu dira, programa herrialde horien beharretara egokitu da, eta programan parte hartzen duten europarrentzako finantzazioa handitu da. Arestian aipaturiko bi ekimen horietatik, beraz, ondoriozta daiteke zenbait egokitzapen bere horretan uztea egoki dela.

(9) Bada goi-mailako hezkuntzari buruzko auzietan hirugarren herrialdeekin elkarlanean aritzeko programa bat, Europako goi-mailako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko, herrien arteko elkar-ulertzea sustatzeko eta hirugarren herrialdeetan goi-mailako hezkuntza iraunkorra garatzen laguntzeko. Programa horren bidez, buru argiak kanpora joatea saihestu nahi da eta egoerarik okerrean bizi diren herritar taldeei lagundu. Bikaintasun handiko programa batean helburu horiek bete daitezten, graduondokoetarako ikasketa-plan integratuak aurreikusi behar dira. Ikasketa-plan integratuak egin behar dira, baita ere, Erasmus Mundus ekintzako (2. ekintzako) elkarteak arautzeko. Era berean, hirugarren herrialdeekin ikasketa-ziklo guztietan Europak izan dezakeen hartu-emanara arautu beharra dago; bekak eman behar dira ikaslerik argientzat; eta zenbait proiektu landu behar dira, Europako goi-mailako hezkuntzaren erakargarritasuna munduan sustatzeko. Bereziki, bikaintasunaren helburuak Erasmus Mundus (1. ekintza) programa bateratuen eta 2. ekintzaren bidez bete behar dira. Garapenerako helburuak, aitzitik, 2. ekintzaren bidez soilik bete behar dira. Programa ebaluatzean, Batzordeak aztertu beharko du programak zer eragin izan dezakeen buru argiak beste herrialde batzuetara joatean.

¹ C 139 EO, 2006.06.14koa, 1. or.

² L 97 EO, 2008.4.9koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(10) Programaren onuradunei harrera ona eta kalitate handiko egonaldia bermatze aldera, estatu kideek bisatuak lortzeko prozedurak ahalik eta arinen egiten ahalegindu behar dute. Batzordeak, bere aldetik, zaindu behar du estatu kideen webgune guztiak eta kontaktuen datu guztiak Erasmus Mundus programaren webgunean agertzen direla.

(11) Bazterketa ororen aurkako borroka sendotu beharra dago, arrazakeria, xenofobia eta diskriminazio ororen aurkakoa, besteak beste. Erkidegoak ahalegin handiagoa egin beharko du mundu osoan elkarrizketa eta kulturen arteko elkar-ulertzea sustatzeko. Goi-mailako hezkuntzak demokraziaren ideiak eta giza-eskubideekiko errespetua sustatzen ditu –gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna barne–. Hortaz, hezkuntza horren dimentsio sozialaren bidez ikasleen mugikortasuna errazten bada, parte hartzaileek bertatik bertara ezagutu ahal izango dituzte kultura eta gizarte-inguru berriak, eta, ondorioz, beste kultura batzuk ulertzeko parada izango dute. Helburu horiek betetzearekin batera, eskubideak errespetatu eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ⁽¹⁾ jasotako printzipioak betetzen dira, batez ere, Gutun horren 21. artikuluko 1. paragrafoan bildu direnak.

(12) Hezkuntzaren eta trebakuntzaren arloan, hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza nahiz hizkuntza aniztasuna lehenetsi beharko ditu Erkidegoak. Hizkuntzak ikastea eta irakastea funtsezkoak dira hirugarren herrialdeekin harremanean egoteko, eta funtsezkoak dira, baita ere, herrialde horietara joaten diren ikasleentzat.

(13) 2004-2008 aldian, Batzordearen kanpo-lankidetzarako tresnen bidez, Erasmus Mundus programako beken osagarri moduan, hainbat beka finantzatu ahal izan ziren herrialde jakin batzuetakoak Europara etortzeko: Europan Txinako, Indiako, Mendebaldeko Balkanetako edo AKOB herrialdeetako ikasleen kopurua handitzeko. 2009-2013 aldirako antzeko irtenbideak proposatu daitezke, betiere, lehentasun politikoak eta kanpo-lankidetzarako tresnak aplikatzeko prozedurak nahiz arauak beteta. Errespetatu egin behar dira, baita ere, programaren bikaintasun akademikoa zaintzeko Erabaki honek ezartzen dituen helburuak. Aldi berean, zaindu beharra dago beken onuradunak munduko hainbat lekutakoak izatea eta banaketa geografiko hori orekatua izatea.

(14) Erkidegoak, gauzatzen dituen jarduera guztietan, gizonen eta emakumeen arteko aldeak ezabatzea eta haien arteko berdintasuna izan behar ditu helburu, betiere, Tratatuaren 3. artikuluko 2. paragrafoan araututakoaren arabera.

(15) Egoera okerrean dauden taldeei sartzan lagundu behar zaie. Programaren kapitulu guztietan aktiboki ase behar dira minusbaliotasunen bat duten pertsonen ikaskuntza-behar bereziak. Hortaz, minusbaliotasunen bat duten parte-hartzaileek beka handiagoak jasoko dituzte kostu gehigarriei aurre egin ahal izateko.

(16) Tratatuaren 149. artikuluekin bat, Erabaki honek ez du eraginik izango goi-mailako hezkuntzako ikastetxeak sortu eta aintzatesteko esparru nahiz prozedura juridiko nazionalen gain.

(17) Europar Batasunaren programari mugaz barrura nahiz mugaz haraindi publizitate handiagoa emateko, helburuak betetzeko eta emaitzak zabaltzeko, beharrezkoa da herritarrak informatzeko politika integratua aplikatzea. Politika bateratu horren bidez, herritarrek informazio zehatza eta osoa jasoko dute Batasunean gauzatzen diren ekintzen gain, eta aukera izango dute programak eskaintzen dituen aukeren eta gauzatu beharreko prozeduren berri izateko. Informazio-politika, nagusiki, programan parte hartzen duten goi-mailako hezkuntzako ikastetxeen bidez landuko da. Informazio-politikak berebiziko garrantzia du, batez ere, programan parte-hartze maila apala duten herrialdeetan.

(18) Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduak, 2002ko ekainaren 25ekoak, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplika dakiokkeen finantza-araubidea onesten duenak ⁽²⁾ eta, bestetik, Batzordearen 2342/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduak, 2002ko abenduaren 23koak, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamendua garatzeko arauak buruzkoak ⁽³⁾, biek ala biek Erkidegoaren finantza-interesak zaintzen dituzte. Erregelamendu horiek aplikatzerakoan, kontuan hartu behar da aurrekontuetarako tresnak hautatzean soiltasuna eta koherentzia lehenetsi behar direla, eta programaren bikaintasun akademikoa errespetatu beharra dagoela, eta ezinbestekoa dela baliabideen nahiz baliabideak erabiltzeagatik sortzen den zama administratiboaren arteko proportzionaltasuna zaintzea.

¹ C 303 EO, 2007.12.14koa, 1. or.

² L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or.

³ L 357 EO, 2002.12.31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(19) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak, 2006ko maiatzaren 17an, aurrekontuen diziplinari eta finantza-kudeaketa onari buruzko erakunde arteko ituna sinatu zuten⁽¹⁾. Eta Erabaki honek, erakundeen arteko itunaren 37. paragrafoari jarraiki, urteroko aurrekontu-prozeduran finantza-hornidura ezarri du, eta Aurrekontu Agintaritzarentzat erreferentzia nagusia izango da, programak iraungo duen denbora-tarte osorako.

(20) Programaren bikaintasun akademikoko helburuak errespetatuz, 1. ekintza gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri behar dira eta Europako goi-mailako hezkuntza promozionatzeko jarduerak (3. ekintza) ere arautu behar dira, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiak, Batzordeari esleitu zaizkion egikaritze-eskumenak betetzeko prozedurak arautzekoak², ezarritakoa betez. 2. ekintza gauzatzeko beharrezkoak diren zenbait neurri ezarri behar dira, arau hauetan xedatutakoa kontuan hartuz: 1085/2006 (EE) Erregelamendua, 1638/2006 (EE) Erregelamendua, 1905/2006 (EE) Erregelamendua, 1934/2006 Erregelamendua, AKOB eta EE Elkartzeko Akordioa eta AKOBren eta EEren Barne Akordioa.

(21) Erkidegoaren eta hirugarren herrialdeen artean elkarte aldeaniztunak sortu, mugikortasun aldeaniztuna bideratu eta informazioa elkar trukatu beharra dago, eta, horretarako, neurri bereziak aplikatu eta ekintza bereziak gauzatu behar dira. Horregatik guztiagatik, estatu kideak ez dira gai beren kasa Erabaki honen xedek betetzeko eta Erkidegoak hartu behar du ardura hori bere gain. Erkidegoak, hartara, zenbait neurri ezar ditzake, betiere, Tratatuaren 5. artikuluan araututako subsidiariorotasun-printzipioarekin bat etorriz. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Erabaki honek ez ditu helburu hori lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Programa ezartzea

1. Erabaki honek «Erasmus Mundus» programa (hemendik aurrera «programa» esango diogu) arautzen du. Programaren helburu nagusiak bi dira: batetik, hirugarren herrialdeekin elkarlanean arituz goi-mailako hezkuntzaren kalitatea nahiz kulturen arteko elkar-ulertzea sustatzea, eta, bestetik, hirugarren herrialdeetan Europako goi-mailako hezkuntza-sistemaren parekoa garatzea. Programa aplikatzerakoan, bikaintasun akademikoaren helburuak errespetatuko dira, kontuan hartuta onuradunek mundu osokoak izan behar dutela, eta orekatuta egon behar duela geografikoki.

2. Programa 2009ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra aplikatuko da. Nolanahi ere, programa prestatzeko neurriak –7. artikulua betetze aldera Batzordeak onesten dituen erabakiak barne– Erabaki hau indarrean sartzen denetik aplikatu daitezke.

3. Programak estatu kideek hartu eta aplikatzen dituzten erabakiak babestu eta osatuko ditu. Estatu kideek izango dute hezkuntzaren edukiaren eta hezkuntza- nahiz prestakuntza-sistemak antolatzearen ardura, eta Erkidegoak bete-betean errespetatuko ditu estatu kideen ardura horiek, bai eta haietako aniztasun kultural zein linguistikoa ere.

2. artikulua

Definizioak

Erabaki honetan, esanahi hau izango dute ondorengo hitzek:

1) «goi-mailako hezkuntza»: zeinahi motatako ikasketa-ziklo, ikasketa-zikloen multzo, prestakuntza edo ikerketaren arloko prestakuntza –bigarren hezkuntzaren ondoko ikaskuntzako–, betiere, horretarako eskumena duen agintaritzaren nazionalak aitortu badu goi-mailako hezkuntza-sistemaren barruan dagoela;

2) «goi-mailako hezkuntzako ikastetxe»: goi-mailako hezkuntza ematen duen zeinahi ikastetxe, betiere, horretarako eskumena duen agintaritzaren nazionalak aitortu badu goi-mailako hezkuntza-sistemaren barruan dagoela;

3) «lehen zikloko ikasle»: goi-mailako hezkuntza-programa bateko lehen zikloan matrikulaturik dagoen zeinahi pertsona, betiere, programa hori amaitzean goi-mailako hezkuntzako lehen titulua eskuratzetik badu;

¹ C 139 EO, 2006.6.14koa, 1 or.

² (5) L 184 EO, 1999.7. 17, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- 4) «masterreko ikasle» (bigarren zikloko ikasle): goi-mailako hezkuntza-programa bateko bigarren zikloan matrikulaturik dagoen zeinahi pertsona. Pertsona horrek goi-mailako hezkuntzako lehen titulua izan behar du edo, bestela, horren pareko prestakuntza, nazioko legeen eta praktiken arabera aintzatetsirikoa;
- 5) «doktoregai» (hirugarren zikloko ikasle): ikerketa-lanetan hasi berri den ikertzailea. Ikertzailea azterlanetan has daiteke doktoretza prestatzeko eskubidea ofizialki ematen dion titulua lortzen duen egunetik;
- 6) «doktoratu ondoko ikertzaile»: eskarmentua duen ikertzailea, doktore titulua duena edo gutxienez hiru urtez ikertzaile aritu dena lanaldi osoko dedikazioaz. Hiru urte horien barruan ikerketa-zentro batean bere burua prestatzen eman duen denbora zenbatuko da, ikerketa-zentroak nazioko legeak eta praktikak betetzen baditu. Doktoratu ondoko ikertzaileak bere egitekoa gauzatzeko eskubidea izango du, goi-mailako ikastetxe batean ematen den doktoregoa prestatzeko eskubidea ofizialki ematen dion titulua lortzen duenetik;
- 7) «akademiko»: alderdi profesionalean edo akademikoan eskarmentu nabaria duen zeinahi pertsona, betiere, ikastaroak ematen baditu edo ikertzaile aritzen bada goi-mailako hezkuntzako ikastetxe batean ala nazioko legeekin eta praktikekin bat etorriz eraturik dagoen ikerketa-zentro batean;
- 8) «goi-mailako hezkuntzako irakasleak»: goi-mailako hezkuntza-prozesuan zuzenean parte hartzen duten pertsonak;
- 9) «Europako herrialde»: zeinahi estatu kide edo, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, programan parte hartzen duen zeinahi herrialde. Pertsona bati dagokionez, «europar» terminoak zera esan nahi du: Europako zeinahi herrialdeetako den edo zeinahi herrialdetan bizi den pertsona. Ikastetxe bati dagokionez, aldiz, «europar» terminoak adierazten du ikastetxea Europako herrialde batean kokaturik dagoela.
- 10) «hirugarren herrialde»: Europatik kanpoko zeinahi herrialde. Pertsona bati dagokionez, «hirugarren herrialde batekoa» adierazpideak hauxe nabarmentzen du: delako pertsona hori ez dagoela Europako herrialde batean nazionalizatua eta ez dela Europako herrialde batean bizi. Ikastetxe bati dagokionez, aldiz, «hirugarren herrialde batekoa» adierazpideak adierazten du delako ikastetxe hori ez dagoela Europako herrialde batean. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1720/2006/EE Erabakiaren bidez ezarri da ikaskuntza iraunkorraren eremuko jarduera-programa ⁽¹⁾. Programa horretan parte hartzen duten herrialdeak ez dira hirugarren herrialdeetat hartuko 2. ekintza aplikatzeko;
- 11) «masterra» (bigarren zikloa): goi-mailako hezkuntzako ikasketak, bigarren ziklokoak, lehen titulazio baten edo horren baliokide den prestakuntzaren ondoren gauzatutakoak. Masterra eginez, titulazio bat lortzen da, goi-mailako ikastetxe batek emandakoa.
- 12) «doktoretza» (hirugarren zikloa): ikerketa-programa, goi-mailako hezkuntzaren barrukoa. Doktoretza lehen titulazioa lortu ondotik egiten da eta doktoretza bete duten ikasleei goi-mailako ikastetxeek master titulazioa ematen diete. Ikerketa-zentroek ere eman dezakete, betiere, zentroa dagoen estatu kidearen legeek eta praktika nazionalak hartarako aukera ematen badute.
- 13) «mugikortasuna»: ikasleak fisikoki beste herrialde batera joatea ikasketak egitera, eskarmentu profesionala hartzera, ikertzera edo ikaskuntzarekin, irakaskuntzarekin, ikerkuntzarekin nahiz hezkuntza-administrazioarekin loturiko zeinahi jarduera gauzatzera. Ahal den neurrian, onuradunek joango diren herrialdeko hizkuntza ezagutu behar dute.
- 14) «titulazio bikoitza edo anitza»: bi diploma nazional edo gehiago, goi-mailako bi ikastetxek edo gehiagok emandakoak eta ikastetxeak dauden herrialdeetan ofizialki onartutakoak.
- 15) «titulazio bateratua»: diploma bakarra, programa integratua eskaintzen duten goi-mailako hezkuntzako ikastetxeetako bik gutxienez igorria, eta ikastetxe horiek dauden herrialdeetan ofizialki onartutakoa.
- 16) «enpresa»: sektore publiko edo pribatuan jarduera ekonomikoa duen zeinahi enpresa, tamaina batekoa ala bestekoa izan, bere estatutu juridikoa edo sektore ekonomikoa edozein dela ere –baita ekonomia sozialaren sektorekoa bada ere–.

3. artikulua

¹ L 327 EO, 2006.11.24koa, 45. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Programaren xedeak eta helburu zehatzak

1. Programaren xedeak hauek dira: Europako goi-mailako hezkuntza sustatzea; ikasleen ikuspegi profesionala zabaltzen eta hobetzen laguntzea; eta, azkenik, kulturen arteko elkar-ulertzea bultzatzea, hirugarren herrialdeekin elkarlanean, betiere, Batasunaren kanpo-politikaren helburuekin bat etorriz. Horren guztiaren bidez, hirugarren herrialdeei lagundu nahi zaie goi-mailako hezkuntza iraunkorra garatzen.

2. Hauek dira programaren helburu zehatzak:

a) goi-mailako ikastetxeen artean kooperazio egituratua izaten laguntzea eta kalitate handiko goi-mailako hezkuntzaren eskaintza sustatzea. Hezkuntza horrek europar ukitu nabaria izango du eta Batasunaren barruko ikasleak erakarriko ditu, baita Batasunetik kanpokoak ere, bikaintasun-guneak sortzeko etorkizunean;

b) sozietateei elkar aberasten laguntzea. Horretarako, gizon eta emakumeen prestakuntza landuko dugu beren gaitasunak lan-merkatura egokiturik egon daitezen eta, gainera, pentsamolde irekia eta eskarmentua izan ditzaten nazioartean. Horretarako sustatuko dugu, alde batetik, hirugarren herrialdeetako ikaslerik nahiz akademikorik onenen mugikortasuna –Batasunean eskarmentua eta prestakuntza har dezaten–, eta, bestetik, Europako ikaslerik nahiz akademikorik argienak beste herrialde batzuetara joatea;

c) hirugarren herrialdeetako goi-mailako hezkuntzako ikastetxeek nazioartean elkarlanean aritzeko duten gaitasuna eta giza baliabideak garatzen laguntzea, Batasunaren eta hirugarren herrialdeen arteko mugikortasuna suspertuz;

d) Europako goi-mailako hezkuntzara sartzeko bidea erraztea; Europako goi-mailako hezkuntzak munduan duen izen ona zein ikuspena indartzea; eta hirugarren herrialdeetan nazionalizatutako ikasleak nahiz ikasle europarrak erakartzeko Europak duen gaitasuna sustatzea. 3. Batzordeak zainduko du inork ez baztertzea hirugarren herrialdeetan nazionalizatutako lagunak edo europarrak.

4. artikulua

Programako ekintzak

1. Programaren xedeak eta helburu zehatzak, 3. artikuluan jasotakoak, ekintza hauen bidez gauzatu dira:

a) 1. ekintza: Erasmus Mundus programa bateratuak (masterrak eta doktoretzak), kalitate handikoak eta beka-sistemadunak;

b) 2. ekintza: Erasmus Mundus elkarteak Europako eta hirugarren herrialdeetako goi-mailako hezkuntzako ikastetxeen artean. Elkarte horiek lankidetzaren egituratuaren oinarri izango dira, baita trukearena eta hezkuntzako goi-maila guztietan gauza daitekeen mugikortasunarena ere. Beka-sistema izango dute;

c) 3. ekintza: Europako goi-mailako hezkuntza sustatzea, Europak bertan ikasteko duen erakargarritasuna suspertzeko eta munduan eredu-garri izan dadin.

Eranskinean ekintza horiei buruzko informazio xehea jaso da.

2. 2. ekintzari dagokionez, Erabaki honetako xedapenak aplikatu dira 2. taldeko ekintzak finantzazioa arautzen duen legezko egintzan xedatutakoarekin bat datozen heinean eta 12. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutakoaren arabera.

3. Jarraian aipatuko ditugun ikuspegiak konbinatu eta aplikatu daitezke:

a) kalitate handiko hezkuntza-programa bateratuak eta lankidetzako sareak garatzen laguntzea, esperientziak eta praktika egokiak elkar trukatu ahal izateko;

b) bikaintasun akademikoaren irizpideei jarraiki aukeratu diren pertsonen mugikortasunerako laguntza indartzea, batez ere hirugarren herrialdeetatik Europako herrialdeetara etor daitezkeen goi-mailako ikasketak egitera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren irizpidea eta onuradunak munduko zoko eta bazter guztietakoak izan behar direla gogoan hartuz. Horrez gain, aukera-berdintasuna eta bazterketarik eza irizpideak betez, programan parte hartzeko aukera emango zaie ikasle guztiei.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) gaitasun linguistikoak ahalik eta gehien sustatzea. Posible izanez gero, goi-mailako ikastetxeak dauden herrialdeetan hitz egiten diren hizkuntzetatik bi ikasteko aukera emango zaie ikasleei. Era berean, beste kultura desberdin batzuekiko ulermena sustatuko da;

d) proiektu pilotuei laguntza eskaintzea nazioz haraindiko elkarteetan oinarritutakoei eta goi-mailako hezkuntzaren kalitatea nahiz berrikuntza pizteko helburua dutenei. Eta, bereziki, eragile akademiko eta ekonomikoen artean elkarteak sortzeko aukera babestuko da;

e) goi-mailako hezkuntzaren joerei eta eboluzioari buruzko analisia eta jarraipena nazioartean babestea.

4. Programan laguntza teknikoko hainbat neurri aurreikusi dira –azterketak, eta adituekin bilerak egitea, esaterako–, bai eta programako helburuak lortzarekin lotura zuzena duten argitalpenak eta informazioa kaleratzea ere.

5. Batzordeak bermatuko du ekintzei buruzko nahiz programaren eboluzioari buruzko ahalik eta informazio gehien hedatuko dela, batez ere, Erasmus Mundus webgunearen bidez.

6. Batzordeak, proposamenetarako edo lizitazioetarako deialdien emaitzak aztertu aurretik, artikulua honetan aurreikusi diren ekintzak babestu ahal izango ditu. 4. paragrafoari jarraiki ezarri diren neurriei dagokienez, Batzordeak, kasuan kasu, neurri horiek zuzenean aplikatu ahal izango ditu, betiere, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduarekin bat etorriz. Batzordeak gai horren inguruko informazioa sistematikoki emango dio Europako Parlamentuari eta Erabaki honetako 8. artikuluko 1. paragrafoan zehaztu den komiteari.

5. artikulua

Programan parte hartzea

Eranskinean zehaztu diren gauzatze-moduen arabera eta 2. artikuluko definizioak kontuan harturik, programan hauek parte har dezakete:

a) goi-mailako hezkuntzako ikastetxeek;

b) goi-mailako hezkuntzako ikasleek, maila guztietakoek, baita doktoregaiek ere;

c) doktoratu ondoko ikertzaileek;

d) akademikoek;

e) goi-mailako hezkuntzako irakasleek;

f) nazioko legeekin eta praktikekin bat, goi-mailako hezkuntzaren arloan lanean aritzen diren erakunde publiko nahiz pribatuek;

g) enpresek;

h) ikerketa-zentroek.

6. artikulua

Batzordearen eta estatu kideen egitekoak

1. Batzordearen egitekoak:

a) Eranskinarekin bat etorriz programan aurreikusi diren Erkidegoko ekintzak eraginkortasunez eta gardentasunez aplikatzen direla zainduko du Batzordeak, eta 2. ekintza 7. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusi diren zuzenbide-tresnak aplikatuz gauzatu dela. Bikaintasun akademikoko programako onuradunen atalean zehaztu diren helburuak errespetatuz egingo du hori guztia;

b) Batzordeak kontuan izango du estatu kideen eta hirugarren herrialdeen artean aldebiko lankidetzatza gauzatzen dela;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) Batzordea sinergiak sortzen saiatuko da eta, beharrezkoa denean, Erkidegoko beste programa eta ekimen batzuekin ekintza bateratuak garatzen ahaleginduko da, goi-mailako hezkuntzaren eta ikerkuntzaren alorrean;

d) Beken zenbateko osoa ezartzean, Batzordeak zainduko du kontuan hartzen direla bai matrikula-tasak baita ikasketak gauzatzeko batez besteko gastuak ere;

e) Batzordeak iritzia eskatuko die Europako goi-mailako hezkuntzaren alorreko elkarte eta antolakunde eskumendunei programa gauzatzeko sor litezkeen auziei buruz. Horrez gain, 8. artikuluko 1. paragrafoan zehaztu den komiteari kontsulta horien erantzunen berri emango dio;

f) hirugarren herrialdeetan dituen ordezkaritzetara aldi-aldi programari buruzko informazio erabilgarria emango die Batzordeak, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten.

2. Estatu kideen egitekoak:

a) programak eraginkortasunez funtzionatu duela bermatze aldera, estatu kideek beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte: goi-mailako hezkuntzaren alorrean parte hartzen duten alderdi guztiak elkartetan bilduko dituzte, betiere, praktika nazionalak jarraiki, eta, horrez gain, ahaleginduko dira egoki deritzoten neurriak ezartzen, Europako herrialdeen eta hirugarren herrialdeen artean trukeak gauzatzeko programekin lotura duten traba juridiko edo administratibo oro gainditzeko. Estatu kideek informazio zehatza eta argia eman behar diete ikasleei eta ikastetxeei, programan erraz parte har dezaten;

b) Batzordearekin soinez soin lankidetzan aritzeko egitura egokiak izendatuko dituzte;

c) Erkidegoko beste programa batzuekin eta estatu kideetan ezarritako ekimen nazionalekin egon daitezkeen sinergiak sustatuko dituzte.

3. Batzordea, estatu kideekin elkarlanean, alderdi hauetaz arduratuko da:

a) programak babestu dituen ekintzei buruzko informazioa emateaz, publizitatea egiteaz eta jarraipena gauzatzeaz;

b) programaren esparruan gauzatu diren jardueren emaitzak zabaltzeaz;

c) interesaturik egon daitezkeen ikasle europarrei informazioa emateko estrategia biziagotzeaz eta, bestetik, unibertsitateen, gizarte-solaskideen eta gobernu kanpoko erakundeen arteko elkartzeak sustatzeaz, programa garatzeko asmoz.

7. artikulua

Programa betearazteko neurriak

1. 2. ekintza gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri behar dira, arau hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: 1085/2006 (EE) Erregelamendua, 1638/2006 (EE) Erregelamendua, 1905/2006 (EE) Erregelamendua, 1934/2006 (EE) Erregelamendua, ADOB eta EE Elkartzeko Akordioa eta ADOBren eta EEn Barne Akordioa. Batzordeak 8. artikuluko 1. paragrafoan zehaztu den komiteari erregulartasunez emango dio hartutako neurrien gaineko informazioa.

2. Jarraian aipatuko ditugun neurriak beharrezkoak dira programa betearazteko nahiz Erabaki honetan jaso diren beste jarduerak betetzeko. Neurri horiek Batzordeak hartuko ditu, betiere, 8. artikuluko 2. paragrafoan jaso den kudeaketa-prozesuarekin bat etorriz eta eranskinean jaso diren printzipioak, orientabide orokorrak eta hautaketa-irizpideak betez. Neurriak, horrenbestez, hauek dira:

a) urteko lan-plana –lehenetsunak barne–;

b) urteko aurrekontua, funtsak programako ekintzen artean banatzea eta beken zenbateko adierazgarriak;

c) programa betetzeko beharrezkoak diren orientabide orokorrak aplikatzea –eranskinean azaldu diren hautaketa-irizpideak barne–;

d) hautaketa-prozedurak –hautaketa-komitearen barne-erregelamendua eta osaera barne–;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

e) programa ebaluatzeko xedapenak eta xedapen osagarriak, baita emaitzak zabaltzeko eta transferitzeko xedapenak ere. 3. Batzordeak aukeraketa-erabakiak hartuko ditu. Batzordeak, bi laneguneko epean, horren berri emango dio bai Europako Parlamentuari baita 8. artikuluko 1. paragrafoan azaldutako komiteari ere.

8. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du.

2. Atal hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4 eta 7. artikulua aplikatu behar dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako epea bi hilabetekoa izango da.

9. artikulua

Beste herrialde batzuek programan parte hartzea, estatu kideen baldintza berberetan.

Programan honako hauek har dezakete parte:

a) EEEko kide diren Europako Merkataritza Askeko Elkarteko herrialdeek, EEEren akordioan hitzartutako baldintzen arabera;

b) aurretxikitzeke estrategia hitzartzen duten herrialdeek, betiere, Erkidegoko programetan parte har dezaten herrialde horiekin sinatu diren akordioetan ezarritako baldintza eta printzipio orokorren arabera;

c) mendebaldeko Balkanetako herrialdeek, betiere, Erkidegoko programetan parte hartzeko herrialde horiekin sinatu diren akordioetan ezarritako baldintza eta printzipio orokorren arabera;

d) Suitzak, betiere, herrialde horrekin sinatu bada bere parte-hartzea arautzen duen aldebiko akordioa.

10. artikulua

Auzi horizontalak

Programa gauzatzean, zaindu beharra dago programak bete-betean lagunduko diela Erkidegoko politika horizontalei aurrera egiten, batez ere:

a) Lisboako strategiaren helburuekin bat etorritik, jakintza oinarri duten Europako gizartea nahiz ekonomia hobetzen eta lanpostu gehiago sortzen lagunduko du. Horrez gain, Europar Batasunak munduan duen lehiakortasuna, Batasuneko hazkunde ekonomiko iraunkorra eta Batasuneko gizarte-kohesioa indartzen lagunduko du programak;

b) kulturaren, jakintzaren eta teknologien alde lan egingo du, askotariko Europan garapena modu baketsu eta iraunkorrean gauzatu dadin;

c) europarrak kultura nahiz hizkuntza-aniztasunaren garrantziaz arduratzeko eta arrazakeriaren zein xenofobiaren kontra borrokatzeko kanpainak sustatuko ditu eta, bestetik, kultura arteko hezkuntza bultzatuko;

d) behar bereziak dituzten ikasleak kontuan hartuko ditu, bereziki, behar bereziak dituzten ikasleak goi-mailako hezkuntza-sisteman integratzeko eta guztiontzako aukera-berdintasuna bultzatzeko;

e) gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egin eta bazterketa ororen kontra borrokatuko du; alegia, sexuagatiko, arrazagatiko, etniagatiko, erlijioagatiko, sinesmenengatiko, minusbaliotasunengatiko, adinagatiko edo sexu-orientazioagatiko bazterketaren kontra;

f) hirugarren herrialdeen garapena sustatuko du.

11. artikulua

Koherentzia eta osagarritasuna beste politika batzuekin

1298/2008/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 340/83, 2008/12/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

